


Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Ikastetxea \_\_\_\_\_

EUSKARA  
MAILA AURRERATUA



JARRAIBIDEAK

IRAUPENA: Ordu bat.

- Irakurmenak 3 ariketa izango ditu eta ariketa bakoitzak 5 puntuko balioa.
- 15 puntuko proba da eta gutxienez 9 puntu lortu behar dituzu.
- Erantzunak **Erantzun Orrian** idatzi behar dituzu.
- EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK **ERANTZUN ORRIAN JARTZEA**.

## 1. ARIKETA (5 puntu)

**Ariketa honetan gai baten inguruko 5 testu labur dituzu alde batetik, eta testuak laburbiltzen dituzten esaldiak bestetik. Zuk parekatu egin behar dituzu adibidean (0 zenbakia) bezala. Bi esaldi sobran daude.**

### Saihestu ditzakegun zifra beldurgarriak

**0.** European eta AEBetan, jaten dugunaren bikoitza erosten dugu, edo, beste era batera esanda, kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarretara. Zenbaki eskandalagarri hauek saihestu daitezke, ordea: legedia zorrotzuz, jakien iraupena luzatzeko neurriak hartuz, hornitzaile eta saltokien jardunean gardentasuna eskatuz... eta kontsumitzaileon ohitura txarrak alboratuz.

**1.** Gaiari duela gutxi heldu dio Europar Batasunak, iaz eskatutako txostenaren datuek behartuta: EBn urtean 90 milioi tona elikagai doaz zaborretara, hots, herritar bakoitzak urtean 179 kilo produktu jangarri eta osasuntsu mespretxatzen ditu (kilo erdia egunero). Dagoeneko, Elikagaiak Alferrik Galtzearen Kontrako Urtea izendatu du EBk 2013.

Lehen Munduko soberakinekin gose diren 1.000 milioi pertsonak elikatuko genituzkeen arren, azken helburua ez da soberakinak behar dutenei ematea, baizik soberakinik ez sortzea. Elikagaien gainproduktzioak eta ustiapen erraldoiek izugarritzko kalteak eragiten dizkiote ingurumenari –Lurraren baliabide mugatuak xahutzeaz gain– eta gehiegizko demandak lehengaien prezioa garestitzen du, Hirugarren Mundukoerosketa ahalmena areago murriztuz.

**2.** Saltoki txiki nahiz handietan janari andana galtzen da alferrik. Hasteko, hornitzaileekin duten harremanak du eragina: eskatutako produktuen kopurua ondo kalkulatu behar da, baina supermerkatuan saldu ez dena hornitzaileari itzuli ahal izateak utzikeria errazten du hainbatetan. Gainera, bariatatea eta berriena eduki beharrak ere sortzen ditu soberakinak: “Denetarik izan behar dugu apalategietan, jendeak aukera nahi izaten du, ikusteko, probatzeko... eta horrek behar baino produktu gehiago izatea dakar”, azaldu digu bere izena eman nahi ez duen Eroski supermerkatu bateko langileak. “Era berean, iraungitzearen dauden produktu ugari botatzen ditugu, jogurtak pila bat, iraungi baino bost egun lehenago; arraina, fruituak, barazkiak... ere zakarretara doaz, itxura aldetik zatartzen hasten direnean”. Saltoki eta jatetxeei merke ateratzen zaie jana botatzea, hornitzaileengandik gutxi ordainduta lortzen dituztelako produktuak, eta behin kopuru jakin bat salduta, errentagarritasuna ziurtatuta dute.

**3.** Jana alferrik galtzearen arrazoi handietako bat produktuen iraungitze datarekin dagoen nahasmena da. Jakien etiketa irakurtzean, ezberdindu egin behar ditugu batetik “Tapakian adierazitako data baino lehen kontsumitu” delakoa –alegia, gaztelaniaz edo frantsesez usu irakurri ohi dugun “Consumir preferentemente antes de”, “À consommer de préférence avant le”– eta bestetik “Iraungitze data”. Sarri lehenengo oharra baino ez du eramaten etiketak eta data horrek ez du iraungitze data adierazten, baizik eta fabrikatzaileak iritzi diola data horretatik aurrera produktuak ez dituela beharbada hasierako ezaugarri guztiak bere horretan mantenduko. Hala azaldu digu Iosune Cantalejo Nafarroako Unibertsitate Publikoko Elikagaien Teknologia saileko irakasleak: “Kontsumitu... baino lehen jartzen badu, ez du esan nahi hortik aurrera ezin daitekeenik kontsumitu eta osasunerako arriskua duenik, esan nahi du sentsoialki ez dela agian bere onenean egongo. Alegia, kalitateari begira, hasieran zituen usaina, zaporea, irmotasuna, freskotasuna... ez dituela zertan mantendu, baina jogurta iraungita ere, egun batzuetara jan dezaket lasai asko, besterik gabe egunak pasa ahala geroz eta garratzago egongo da, bizirik dauden bakterioak jogurtaren azukrea jaten ari direlako, eta hilabetera hartutako gosaritako zerealak ez dira hasieran bezain kurruskari egongo, txokolatea zahartzen joango da hilabeteekin, baina osasunari ez diote kalterik egingo. Ezjakintasunagatik, maiz bota egiten dira osasunari

begira guztiz egokiak diren elikagaiak”.

**4.** Soberakinik ez sortzea da funtsa, baina behin sortutakoan, zer egin janari horrekin? Supermerkatuek botatakoa etxeratzeko elkartzen den jendea ugaritu egin da: ez dira eskaleak, ekintzaileak baizik, edo besterik gabe janaria usteltzen uzteko prest ez daudenak. Sarri, behar dutenen artean banatzen dute lortutakoa; Baiona eta Bokaleko taldetxo batek, hain juxtu, hamabost bat laguni ematen die jaten, saltokien zabortegetatik hartutako hondar baliotsuekin. Batzuetan, ordea, ez da lan samurra: supermerkatu handietako kontainerrak gordeta egoten dira zenbaitetan, edo paketeak irekita-puskatuta eta janari dena nahasita.

Boluntarioen lanari esker, Euskal Herriko Elikagaien Bankuek milaka kilo janari eskuratzen dituzte Recondo, Puleva, Beti Ona fruituak, Ortiz kontserbak, San Marcial harategiak, Urdaki, Eroski, Carrefour, Alcampo eta abar luze baten eskutik. Bankuek beraiek jasotzen dute jana eta ondoren, gobernuz kanpoko erakundeak eta antzeko elkarteak arduratzen dira Bankuetatik elikagaiak hartu eta behar dutenen artean banatzeaz.

**5.** Guk geuk, noski, ez da gutxi egin dezakeguna, ekintza errazak izanik. Supermerkatura behar ditugun produktuen zerrendarekin joatea gomendatzen dute; kopuruak ondo neurtu eta soberakinak aprobetxatzea, berrerabiltzea, izoztea eta birziklatzea ohitura bihurtu dezakegu – soberakinak aprobetxatzeko jaio ziren kaneloiak, baratxuri-zopa, *pain perdu* postrea...–; eta egungo kontsumo eredua norberak alda dezake, bitartekaririk gabe zuzenean inguruko ekoizleei erositik. Adibide bakan batzuk baino ez dira, finean garai bateko ardura berreskuratzea baita gakoa, beharbada gaur egun elikagaiak duten balio ekonomiko hutsalarengatik galdu dugun kontzientzia berreskuratzea. Osterantzean, planeta bera galduko dugu alferrik.

*Argia aldizkaria (Moldatua)*

## **ESALDIAK**

- A. Elikagaien etiketek garbi asko azaltzen dute gauza bat dela “Iraungitze data” eta bestea “Kontsumitu adierazitako data baino lehen”.
- B. Elikagaien inguruko informazioa nahasgarria suertatzen zaio erosleari.
- C. Estatuak jabetzen hasiak dira janaria alferrik galtzearen arazoaz.
- D. Eta kontsumitzaileok zer egin ahal dugu?
- E. Hainbat erakunderi esker, janari mordo bat aprobetxatzen da.
- F. Kontsumitzen dugunaren erdia botatzen dugu zakarrontzira.**
- G. Supermerkatuak janaria alferrik galtzearen erantzule dira.
- H. Supermerkatuetan botatzen diren elikagaiak ez dira jangarriak.

Testuak	<b>0</b>	1	2	3	4	5
Esaldiak	<b>F</b>					

## 2. ARIKETA (5 puntu)

Ariketa honetan *Berria* egunkariko artikulua bat duzu. Aukeratu erantzun egokia (a, b, c) adibidean (0 zenbakia) bezala.

### Elkartasun olatua

Asiako itsasikarak harrapatu, suntsitu eta kaltetutako herrialdeen egoera izugarriak hunkituta gauzka, heriotza era bortitzean jabetu baita hango ehunka mila biztanleen biziaz eta, beti bezala gainera, heriotzak eta pobrezia bikote aparta ezina egin baitute.

Hori horrela izanda ere, aitortu beharra daukat gaiak hainbat komunikabidetan hartu duen presentziari gabonetan telebista kate guztietan gero eta gehiago ugaltzen ari diren telemaratoiaren kutsua hartzen diodala, tarteka elkartasun faltsu moduko bat...

Elkartasunerako deiak etengabeak dira eta herritarrok, ahal dugun neurrian, janaritan dela, dirutan dela, gure esku dagoena jarri nahi izaten dugu. *Mugarik gabeko Medikuek* gobernuz kanpoko erakundeak argitaratutako oharra esanguratsua iruditu zait oso: urtarrilaren bosterako, mundu guztiko bere bulegoetan 40 milioi euro jaso ditu premiazko egoerei aurre egiteko eta, bere azpiegitura eta ahalmenak ikusita, diru hori nahikoa du erakundeak oraingoz egin behar dituen lan guztiak egiteko; beraz, momentuz ez du helburu horretarako diru gehiago behar. Oso leiala iruditu zait ohar hori, zinez.

Paul Nicholsonen bidez *Via Campesina*-k ere zabaldu zuen laguntzak arduraz bideratzeko deia, honelakoetan dirudienek «oro ez baita urre» eta *Via Campesina*-koek Mitch urakanak astindutako lurraldeetako gogoan baitute oraindik: hau da, laguntza guztiak ez zirela beti iritsi behar zuten lekura iristen.

Nolanahi ere, nire gaurkoaren azken helburua ez da hori bakarrik. Herritarrok gure elkartasuna bideratzea ekimen bikaina iruditzen zaidan neurrian, uste dut gure zergak ordaintzen dizkiegun gobernuei exijitu egin behar diegula, era pribatuan elkartasuna adierazten dugun heinean, adieraz dezatela beraiek publikoki elkartasun hori. Azken batean gure dirua da eskutan darabiltena eta guk lagundu egin nahi dugu.

Kaltetutako herrialdeen kanpo zorraren ordainketaren luzamendua onartu zuen atzo, Jakartan egindako nazioarteko goi bileran. Kofi Annan, Colin Powel, Rodrigo Rato... goi mailako agintariak eta Annanen hitz batzuk herrialde horietan gertatutakoak ez duela aurrekaririk eta agian sekula ez dela jakingo zenbat hildako izan diren esanaz.

Gertatutakoak aurrekaririk ez badu, erantzuna izan dadila tamainakoa. Barka dezatela kaltetutako kanpo zorra. Ez dute beste ezer egin beharrik, zorra barkatu eta han bertan beraien fondoak liberatu, ezer mugitu, garraiatu eta eraman beharrik gabe. Ez zaie batere kostatzen. Hori *tsunamia*-ren tamainako elkartasun olatua izan liteke eta nahi badute erraz egin dezakete.

Maddalen Iriarte

*Berria* egunkaririk hartu eta moldatua.

## GALDERAK

**0. Nork idatzi du artikuluak?**

- a) Kofi Annan-ek
- b) Maddalen Iriartek**
- c) Paul Nicholson-ek

**6. Asiako *tsunamia* dela-eta, Maddalen Iriartek hauxe somatu du hainbat komunikabideren partetik:**

- a) Benetako elkartasuna, telemaratoietan batez ere.
- b) Elkartasuna ez dela benetakoa, itxura kontua baino ez dela.
- c) Telebista kateen artean lehia izugarri bat ikusleak bereganatzeko.

**7. *Mugarik gabeko Medikuak* gobernuz kanpoko erakundearen oharra esanguratsua eta leiala dela esan du Maddalen Iriartek. Zergatik?**

- a) Aurrerantzean diru gehiago beharko balu ere, ez lukeelako eskatuko, aski baitu orain arte jasotakoarekin.
- b) Behar baino diru gehiago nahi duelako, aurrerantzean zer gerta ere!
- c) Orain dituen beharrei erantzuteko adina diru duelako, eta oraingoan gehiago nahi ez duelako.

**8. Zein da *Via Campesina*-koen deia?**

- a) Laguntzak bideratzeko prozesua *Mitchen* kasuan erabili zen berbera erabili behar dela oraingoan.
- b) Laguntzak bideratzeko prozesu guztia gardentasunez egin behar dela.
- c) Paul Nicholson-ek ez ditzala laguntzak bidera!

**9. Jakartan egindako nazioarteko bilerak helburu hauxe izan zuen:**

- a) kaltetutako herrialdeen kanpo zorra bertan behera uztea.
- b) kaltetutako herrialdeen kanpo zorra momentuz atzeratzea.
- c) zenbat hildako izan ziren argitzea.

**10. Zer da Maddalen Iriartek artikulua honen bidez aditzera eman nahi izan duena?**

- a) Gobernuak badutela modu bat herrialde kaltetuei laguntzeko: kanpo zorra bertan behera uztea.
- b) Gobernuen elkartasunaren gaineratik, herritar guztion elkartasuna dela bultzatu behar dena.
- c) Herrialdeak zenbat eta pobreagoak izan, orduan eta zorigaitzokoagoak direla.

Galdera	<b>0</b>	6	7	8	9	10
Erantzuna	<b>B</b>					

### 3. ARIKETA (5 puntu)

Ariketa honetan 5 hutsune dituen *Berría* egunkariko artikuluko bat duzu. Zazpi aukera eskaini zaizkizu. Hautatu hutsune bakoitzari dagokiona, adibidean (0 zenbakia) bezala.

#### Haizeak defendatuko du "David"

*Goliath* garaitu zuen artzainaren irudia berpizkundeko maisulanetako bat da *David*. 1501 eta 1504. urteen artean zizelkatu zuen Michelangelok, aurretik beste eskultore batzuek baztertu zuten marmol bloke handi batetik. Estatua bost metro luze da eta 5,5 tonako pisua du. \_\_\_\_0\_\_\_\_, Florentziako Signoria jauregiaren parean, baina 1873an obra babesteko, kaletik atera eta *Galleria della Accademia*-ra eramatea erabaki zuten. Haren tokian jarri zen kopiak jasaten ditu ordudanik turistek ilada amaigabeen argazki saioak.

Michelangeloren estatuarik entzutetsuenak ez du atsedetik hartzen. \_\_\_\_11\_\_\_\_, *David* bere distira guztia agerian du berriro, eskultoreak zizelkatu zuenetik 500 urte igarota. Zaintzapean duten teknikariek, hala ere, eskulturaren edertasuna arriskuan jartzen duen beste aurkari bat atzeman dute, isilagoa eta ia ikusezina: hautsa.

Marmola ilundu egiten du hautsak, eta, beharrezko neurriak hartzen ez badira, behin betiko hondatzeko arriskua dago. *Galleria della Accademia*-ko zuzendariak, Franca Fallettik, azaldu duenez, hautsez bete ohi da Michelangeloren maisulana, eta \_\_\_\_12\_\_\_\_ partikula kaltegarri horiek garbitu behar dituzte.

*David* ikusteko asmoarekin *Galleria della Accademia*-ra doazen bisitariek —milioi bat baino gehiago iaz— \_\_\_\_13\_\_\_\_ aurre egiteko zein sistema erabili aztertzen ari dira orain. Gogokoena eskultura inguratuko duen haize harresia jartzea da. Haizeak kanpora putz egingo du, airean dauden partikulak estatuara hurbil ez daitezen.

Ez da Italiako Ikerketa Zentro Nazionalak eta Florentziako Ondare Kultureko Superintendentsiak esku artean duten aukera bakarra. \_\_\_\_14\_\_\_\_, oinetakoak garbitzeko alfonbra bereziak jartzea aztertu dute, edo, eskulturaren ondora hurbildu baino lehen, arropetako hautsa xurgatzeko korridorea paratzea. \_\_\_\_15\_\_\_\_, *David* erakusleho batean gordetzea baztertu dute, eskultura ez delako hain ikusgarria suertatuko.

*Berría* egunkaritik hartu eta moldatua.

## AUKERATZEKO SINTAGMAK EDO ESALDIAK

- A. ARROPETAN ETA OINETAKOETAN ITSATSITA DARAMATEN HAUTSARI
- B. BI HILABETETIK BEHIN
- C. DUELA GUTXI BURUTU DEN ZAHARBERRITZE LAN SAKON BATEN ONDOTIK
- D. EDONOLA ERE
- E. ESAN BEZALA
- F. ESATERAKO
- G. HONDATU BEHARREAN
- H. **IA 400 URTEZ AIRE ZABALEAN PARATURIK EGON ZEN**

Hutsunea	<b>0</b>	11	12	13	14	15
Testu zatia	<b>H</b>					